


BETERRIKO ALDIZKARIA


AIURRI

1996ko uztailearen 12a. 40. zenbakia. Dohain banatzen da.



TUBERKULOSIAK JOTA

Ama Kandida etorbidea z/g.
DENAK 115 - ANDOAIN
☎ 30 04 67



idegas, S.L.

GASA ETA BEROGINTZA



**Oraindik AIURRI
aldizkaria
etxean jasotzen
ez baduzu zeren
zain zaude?!**

Deitu telefono honetara



30 07 32


1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
Joxin Azkue: "Akabo Euskal Herria? Ez horixe!".
2. **GALDEZKA.**
Eta zuk, zer iritzi duzu bikote ezkongabeen erregistroari buruz?
3. **LARRAUL.**
Santi Antero, Larraulgo magoa.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**
Azkenean, udal batzarra egin zen.
Zenbait akordio Karrikako bizilagunekin.
Xabier Ansa hil da.
7. **ASTEASU**
Udala Joxe Lizaso estraditatzearen aurka.
- 8-9. **BILLABONA.**
Koadrilen arteko futbol eta pentlatoi txapelketak.
Babes ofizialeko 56 etxebizitza egingo dituzte.
10. **ZIZURKIL.**
Mila Ipintzarekin solasean.
11. **ENPRESA.**
Andoain: Cenia igogailuak.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**
Tuberkulosia.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**
Mercedes Iturralde: Gipuzkoako haur etxeko zuzendaria.
- 16-17. **KULTURA.**
Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak.
18. **ERRETRATU ZAHARRA.**
19. **ZER BERRI? / LEHIAKETA.**
20. **AGENDA**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32
Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak.
Zuzendaria: Antxiñe Mendizabal.
Maketatzailea: Iñaki Garmendia. **Erredakzioa:** Antxiñe Mendizabal eta Ainhoa Oiartzabal
Argazkiak: Manu Mujika, **Komikia:** Iñaki G. Erro.
Publizitate arduraduna: Fernanda Irazu
Administratzaile-eragilea: Xabier Irisarri.
Inprimategia: Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati).
Filmaketa: VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-20294 ISSN: 11354-0614
Tirada: 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



Akabo Euskal Herria? Ez horixe!



JOXIN AZKUE

Euskal Herriko leihora begiratzeak ez du askotan animu handirik ematen, nahiz eta norbera, berez, ni bezala, nahikoa optimista eta baikorra bada ere. Alde batera zein bestera begiratu, zenbat gauza ilun ikusten den! Langabezia, geroz eta ja-sangaitzagoa: familia asko eta asko, bihotza zurrunduta, hila-betea nola bukatuko. Eta lana aurkitzeko **suerte**a duenak, no-lakoa, nola ordaindua, zein baldintzetan jarduteko! Eta zer e-sanik ez politikara ematen duen leihora ateratzen bagara. Ge-roz eta polizia gehiago, geroz eta ertzaina ugariago (hori bai, bakoitzak porra esku batean, bideo-kamera bestean, txukun-txukun). Bestalde, norbait mugitzen bada, **ofiziala** ez den ekimen berrien bat aurkezten badu, aparatuek asko mugatuko dute, anatomizatu, inizatiba debekatuko diote. Edota oraingo **moda** berria, beste zerbaite muntatu egun bererako.

Beste adibidea euskal preso politikoeekin egiten ari diren horretan dugu, truke-txanpon gisa erabiliak txantaitarako, zor zaizkien, beraienak diren, hau da, inork uka ezin dizkien oina-rrizko eskubideekin jokatu. Errukigarria presoen egoera, eta errukigarria baita ere beraien senideena, familiena, hainbeste kilometrotako bidaiak egitera zigortuta, bere burua demokrata garbitzat duten agintari batzuen erabakiz. Non dira komunika-bide **neutral** eta **demokrata** horien salaketak? Non lazo ponpoxoa daramaten justizieroen protestak?

Zenbat kostatzen den argiren bat ikustea, urrutian eta txiki-txikia bada ere! Hasieran nioen nahikoa baikorra naizela etor-kizunarekin. Eta horrela da, inongo dudarik gabe, Euskal Her-riak haize freskoa eta berria behar du. Eta haize hori, gure gazteriaren biriketarik sortuko dena izango da, ez zakantzarik izan. Aiurritar batek, duela aste gutxi, orrialde honetan bertan, sermoilari kanpotarra zelako Meza Nagusira pozik joaten zen eta festetan garbantzuerekin eta oilaskoekin gozatzen zen gazte-ria aldarrikatzen zuen. Gaurkoa herriz, axolagabea omen, eta honekin akabo gure Euskal Herria!

Egia esan, ez dut ezer garbantzuen eta oilaskoen aurka, ez eta Meza Nagusien kontra ere. Guraso izateaz gain, nire lanbi-dea batxilergo irakaskuntzari lotuta dago, eta beraz, gaurko eus-kal gazteria oso gertutik jarraitzeko aukera eta suerte parega-bea dut. Denok bezala, bere akatsak ditu, nola ez bada! Baina orokorki, pena merezi du: solidarioagoa, lehengoko gazteriak baino konpromezu handiagoak hartzen dituen. Noski, ez da-tor bat dinosauroen Euskal Herriarekin. Baina garai haiek joan ziren, urteen haizeak eraman zituen, eskerrak, eta aurrera be-giratu beharra dago. Benetako etorkizuna gure gazteengan oi-narrituko da, eta hori da Euskal Herriko leihoran ikusten dudun argirik indartsuenetakoa. Akabo Euskal Herria? Inolaz ere ez, gazteri honekin...

Hor dugu geroa. Eutsi tinko neska-mutilak.



Aldizkari honek Eusko Lehen Hiztegia Kulturaren Laguntza jasotzen du.



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldudiko Kulturaren Laguntza jasotzen du.

ETA ZUK, ZER IRITZI DUZU BIKOTE EZKONGA- BEEN ERREGISTROARI BURUZ?

Andoainen Ezker Batua alderdiak udaletxean bikote ezkongabeen erregistroa irekitzeko proposamena egin eta alderdi guztiek aho batez onartu dute. Gaur egun, bikote ezkonduak bakarrik eman dezakete udaletxean izena. Aurrerantzean elkarrekin bizi diren bikote homosexualek eta heterosexualek

izango dute era berean horretarako aukera, eta aurrekoen eskubide sozial, ekonomiko eta juridiko berberak izango dituzte. Euskal Herrian, Jose Angel Cuerda alkate zela, Gasteizen ireki zen era honetako lehenengo erregistroa. Zer iruditzen zaizu zeure herrian bikote ezkongabeen erregistroa jartzea?



Francisco Weill, jubilatua. Andoain.

Arrimatuta bizi diren bikoteentzat da, ezta? ... Ongi iruditzen zait. Gainera, bikote asko bizi dira horrela, gehienak. Zerbait entzunda neukan telebistan edo, baina ez nekien hemen horrelakorik zegoenik.



Noelia Tiemblo, langilea. Billabona.

Ongi iruditzen zait. Ezkontzen ez diren bikoteen erabakia errespetatzen dut. Bestalde, azken aldi honetan oso modan jarri da berriro elizan ezkontzeko ohitura. Aukera bat gehiago eskaintzen du erregistroak, baina ni elizan ezkonduko nintzateke.



Oihane Otegi, ikaslea. Asteasu.

Oso ondo iruditzen zait. Bakoitzak nahi duena egin behar du, besteen erabakiak errespetatu egin behar dira. Ez dago zertan beti familia tradizionala osatu beharrik. Aukera hori herrian jartzea egoki iruditzen zait.



Sebas Otegi, langilea. Andoain.

Ez nekien Andoainen horrelako asmorik zegoenik. Niri egia esan, jarri ala ez jarri berdin-berdin zait, ez zait batere inporta. Zer mesede egingo digu guri horrek?



Josu Aburuza, ikaslea. Aduna.

Ez nekien horrelakorik zegoenik ere. Ondo iruditzen zait, bakoitzak ikusiko du zein aukera hartu nahi duen. Nik, gainera, horixe bera egingo nuke, ez ezkondu, eta horrela neskaz aldatzea errazagoa da. Bestalde, sexu bereko bi pertsona elkarrekin bizitzea ongi iruditzen zait.



Karmele Auzmendi, etxekoandrea. Zizurkil.

Egokia iruditzen zait erabakia. Pentsaera berriak dituen jendearentzat aukera berri bat da. Zergatik behartuko dut neure alaba, adibidez, ezkontzera? Gustatuko litzaidake hori herrian egin ahal izatea.

MENDI
AUTOESKOLA

Agustin Leitza, 11 - ☎ 300604
20140 ANDOAIN

Mimos

HAUR ETA GAZTEENTZAKO MODA
JAIOBERRIARENZAKO
BEHAR DEN GUZTIA

BANATZAILEAK:

- BEBE CONFORT
- JANE •ARRUE
- INGLESINA

Kale Nagusia, 29 - BILLABONA

Loitzo

UZTAILEAN DESKONTUAK
KUADRO ETA
KOLTZOIETAN

Errota kalea, 3 - ☎ 69 21 35 BILLABONA

SANTI ANTERO, LARRAULGO MAGOA

Asteasun izan berri diren Untzi Piratako Txan Handia da

Hogeita hamabi urteko donostiarra dugu Santi Antero, baina duela lau hilabete inguru Larraulgo bizilaguna bihurtu zaigu. Diseinuigile grafikoa izan da orain artean, baina hemendik aurrera magia emanaldietan aterako du bizimodua. Magoa dela esatea gehiegizkoa iruditzen zaio, "oraindik ikasteko asko falta zait", baina Asteasuko jaietan ikusi zuten hurrek, eta hilaren 24an Billabonan ikusiko dutenek ez dira oso konforme izango adierazpen horrekin.

Aiurri: Egunkariak antolatzen duen Untzi Piratako magoa zara. Zein da zure eginbebarra haurrentzako sato horretan?

Santi Antero: Untzi Piratako magoa naiz, eta haurrei magia jokoak egiten dizkiet autobus barruan; Txan Handia izena dut. Magia nabiz antzerkia gustuko ditut, eta oso gustura nabil, beraz, Untzi Piratan. Gainera, egunean zehar zazpi-zortzi aldiz errepikatzen ditut zenbait magia truko, eta hori oso entrenamendu ona da.

Ai.: Nolatan hasi zinen magia egiten?

S.A.: Txikititatik dut magia egiteko zaletasuna. Baina hemen Euskal Herrian oso zaila da magia ikastea, egitea eta emanaldiak ikusi nabiz eskaintzea. Beraz, neure kabuz ikasi dut egun dakidan magia guztia; telebistako magia saioak ikusi

siz eta abar. Baina duela lau urte lagun batek utzi zidan liburu baten bitartez eta Tolosan irtero antolatzen den magia astearen bidez, hasi nintzen magia serioago egiten eta magia egiten zuen jendea ezagutzen. Gauzak borrela, Gipuzkoako ilusionismo elkarteetan sartu nintzen. Nixkan, alegia. Elkarrean esperientziak elkar trukatu eta gauza berriak ikasten ditugu.

Ai.: Euskal Herrian magia egiteko obiturarik ez dagoela esan duzu; beraz, euskarazko magia gutxi egingo da, ezta?

S.A.: Egun ni naiz euskaraz magia egiten duen mago bakarrenetakoa. Aipatu behar da euskal magiaren alde lan asko egin zuela mago tolosar batek, eta asko eskertzen dugu berak egin zuen lana. Hemengo magia zirkuituak, orokorrean, nabikoa kutsu erdaltzalea dauka. Lan asko dago egiteke esparru horretan, eta ETBn euska-


razko magia saioak emititzea adibidez, bultzada handia izango litzateke.

Ai.: Eskaintzen al dituzu magia emanaldiak zeure kabuz?


S.A.: Duela gutxi Bosnian egon naiz bertako haurrentzako magia egiten, bil honen amaieran Abiadura Handiko Trenaren aurkako asanbladak antolatu duen akapandian ere izango naiz. Buen Pastorreko gose grebalariei ere eskaini nien ikuskizun bat edo beste, eta abar. Beti ere zirkuitu alternatibo baten barruan eman ditut ikuskizunak.

Ai.: Zein egitasmoa dituzu aurrera begira?

S.A.: Orain magia trukoak ondo egiteko ordu asko borretan aritzea, eta ikuskizunak emateko zirkuitu bat antolatu nahiko nuke, tabernetan, adibidez. Magiaren bitartez atera nahi dut bizimodua aurrerantzean.



Txan Handia



- kutxa fundazioa
- fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



TXERRIKIEN BANATZAILE ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA
Aima Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923
ANDOAIN

AZKENEAN, UDAL BATZARRA EGIN ZEN

Senideak elkartearen pankartaren auzia dela eta, otsailaz geroztik lehenengoa

Alkateak udal batzarrera deitutako seigarren aldi honetan ere ez zirudien batzarririk egingo zenik. Batzuek eta besteen aldetik, animoak inoiz baino beroago zeuden, eta giroan tentsio handia nabaritzen zen. Oraingo honetan udaltzainek, alkatearen aginduz, pankarta elkartekideen eskuetatik kentzen saiatu ziren, eta azken hauek bere horretan jarraitzea erabaki zuten. Giroa punturik gogorrean zegoenean, alkateak tarte bat egin, eta alderdi guztietako bozeramaileekin biltzea erabaki zuen. Ia ordutebe ondoren, akordioa iritsi zen.

Senideak elkarteko kideek, aurrekoetan bezala, "PNV-PSOE kartzelero", zioen pankarta zabaldu zuten. Jose Antonio Pérez Gabarainek kentzeko agindua eman zuen, baina ez zioten jaramonik egin. Bien bitartean HBko zinegotzia den Miren Begoña Mujikak gutun bat irakurtzeko hitza eskatu zuen. Alkateak, hura gai zerrendatik kanpo zegoela eta hitza ukatu zion. Senideak elkarteko kideek gogor erantzun zioten.

Alkateak behin eta berriz pankarta kentzeko eta HBko zinegotziari hitzik ez zuela zioen. Senideak elkarteko kideek gero eta gogorrago erantzuten zioten, eta bien bitartean HBko zinegotziak hitza eskatzen jarraitu zuen. Halako batean, alkateak aretoan zeuden udaltzainei pankarta kentzeko agindu zien. Senideak elkarteko kideengana jo zuten, eta pankarta eskuetatik kentzen saiatu ziren. Hauek are gogorrago erantzun zuten, eta ez

zieten pankarta eskuetatik kentzen utzi. Giroa inoiz baino bortitzagoa izatera iritsi zen. Alkateak, azkenean, batzarra bere horretan utzi eta alderdietako bozeramaileekin biltzeko deia egin zuen.

Ia ordubete ondoren, azkenean, auzia nolabait konpondu zen: Senideak elkarteko kideek pankarta ez zabaltea onartu zuten, eta presoan argazkiak utzi zituzten bakarrik agerian. HBko zinegotziak gutuna, preso dagoen Juan Joxe Petrikorena zinegotziaren gutuna hain zuzen ere, irakurtzeko baimena jaso zuen, eta udal batzarra egin zen.

Petriren gutuna

J.J. Petrikorenaren gutuna J.A. Pérez Gabarain alkateari zuzenduta zegoen, eta Alcalá-Mecoko espetxetik eraman baino egun batzuk lehenago idatzita zegoen. Petrikorenak lekuz aldatu behar zutela eta, zeuzkan kezka adierazi zituen gutunean, euskal preso politikoei ezarritako dispersio politika salatzen zuen, eta alkateari dispersioa salatuz Andoaingo Udalak onartutako mozioak gogorazten zizkion. Alkateak beste behin Petri batzar egunetan udaletxean egon zedin egindako gestioak gogoratu zituen, eta erabakia bere eskuetan ez zegoela azpimarratu zuen. Azkenik, Petrik hala eskatuz gero, gogo onez bisitan joango litzaiokeela adierazi zuen.

Eztabaida luzeak erabakiren bat ere hartarazi zien zinegotziei: presoan eta beren senideen egoera aztertzeko eta irtenbideren bat emateko jarraipen batzordea osatzea proposatu eta alderdi politiko guztiek aho batez onartu zuten. Aurrerantzean, beraz, eta batzarrean adierazi zuten, presoan inguruko gai, ekimen eta auzi guztiak bertan eztabaidatuko dira.



J.J. Petrikorenak gutun bat idatzi zuen alkateari



ONDARRETA

TABERNA

Plater konbinatuak

Ogitartekoak

Pintxoak

Ondarreta 9, behea ☎ 59 36 27 ANDOAIN

Arkume eta txerrikume erreak enkarguz

KORO



ILEAPAINDEGIA

Bazkardo 9, 1-A
ANDOAIN ☎ 59 22 46

ZENBAIT AKORDIO KARRIKAKO BIZILAGUNEKIN

Trafiko arazoari irtenbidea eta lorategi berriak auzoan

Udalak herriko lorategiak txukunduko ditu, eta lehenengo eta behin, herrian oso ugariak diren heskaiak kentzen eta lorategiak berregokitzen hasiko da. Heskaien desegokitasuna lorazaintzaileek beraien esanda konturatu dira: zikina pilatzen dute, eta barruko belarra eta lorak zaintzeko zailtasunak ekartzen dituzte. Beraz, lehenengo lana heskaiak kentzea izango da, ondoren belar berria haziaraziko dute, eta bukatzeko, tokian tokiko lore edota zuhaitz aproposenak landatuko dituzte.

Karrika auzoa, Dr. Huizi inguru-nea eta Bazkardo dira herrian lorategi gehien dituzten lekuak. Karrikatik hasia erabaki dute, besetak beste, bertako bizilagunen onespina eta laguntza jaso dutelako, eta lanei ekiteko leku lau eta egokia delako.

Udazkenerako belarra hazita

Aurki hasiko dira lanak: lehenengo ibaiertzeko heskaiak kenduko dituzte, bertan egoteko belar egokia jarriko dute, eta aurrerago apaindu egingo dute. Gaur egun umeen jolasleku diren etxeak inguratzen dituzten hesiak utzi egingo dituzte momentuz, baina Udalak auzoan jolasleku egokia jartzeko asmoa badu, eta poliki-poliki lorategiak berreskuratzeko.

Maxen Zinkunegik adierazi digunez, beste auzo batzuetan ere bizilagunen onespina eta partehartzea ezinbestekoak dira horrelako lanei ekiteko, eta Karrikako esperientziak besteak animatuko dituela uste du.

Udal gobernua, zerbitzuetako batzordeburu den Maxen Zinkunegiren eskutik, Karrikako bizilagunekin hainbat akordioetara iritsi da: batetik, horrenbeste urteetan liskarbide izan den trafiko arazoari irtenbidea emateko bitartekoak jarri dira, eta bestetik, herriko lorategiak konpondu eta txukuntzeko hartu den erabakiari jarraituz, Karrika auzoan esperientzia berria burutuko da.



Aurki lorategi berriak

TRAFIKO ARAZOARI IRTENBIDEA

Auzo elkarteak eta Udalak akordio batera iritea lortu dute: Udalak lanei lehenbailehen ekingo diela adierazi du, horretarako agindutako proiektua esku artean dauka, eta gainera, beharrezko gestio lanak egiten ari da Diputazioan baimenak lortzeko. Horrez gain, bost milioiko aurrekontua dago lanak gauzatzeko. Bestalde, bizilagunek momentuz protesta ekintzak uztea erabaki dute. Bizilagunak negoziazioetan epe batzuk jarri nahi izan zituzten, baina Maxen Zinkunegik ez zuen horrelako konpromezurik hartu nahi

izan, hainbat erabaki batzuk bere eskuetan ez daudelako.

Trafiko arazoa leuntzeko Karrikan zehar altuera pixka bat daukaten zebrabide zabalak jarriko dituzte, gaur egun, adietuek diotenez, semaforoak ez baitira egokiak. Semafororik jartzekotan, auzoaren sarreran dagoen gurutzebidean jarriko dute. Dena den, errepidetik kotxeak ezezik, pisu handiko kamioiak eta autobusak ere igarotzen dira, horregatik ezer erabaki aurretik irtenbiderik egokiena zein den ongi aztertzen ari direla adierazi digu udal ordezkariak.

ALFARO
J A T E T X E A
EGUNEROKO MENUA
Etxeberrieta auzunea
☎ 59 40 27 **ANDOAIN**

XABIER ANSA HIL DA

Bulnesko Naranjon izan zuen istripua eskalatzen ari zela

Hilaren 3an hil zen Bulnesko Naranjo mendian, buruan jasotako kolpearen ondorioz. Gailurretik 60 metrotara zegoen Almirente izeneko bidea egiten ari ziren Xabier, Euskal Mendizaleen Federazioko monitorea den Antxon Alonso eta David Carretero eskalatzaille gaztea, hiruak eskalatzen esperientziadunak. Ansaren hilotza kolpearen ondoren horman gelditu zen zintzilik. Erreskate taldeek hilotza gailurre-ra igo behar izan zuten, eta handik helikopteroz jaitsi. Llanesen autopsia egin ondoren, Andoainera ekarri eta hilaren 5ean egin zituzten hileta elizkizunak San Martin elizan.



33 urte zituen

Xabier Ansa 33 urte zituen, eta betidanik izan zuen mendia zaletasuna: "Kirola egitea baino gehiago, biziera bat dela esango nuke, nire sentsibilitatea gautzatzeko modu bat", zioen 1988. urteko Orrian egindako elkarrizketa batean. Herriko Euskalduna Mendigoizale taldean ere ibilia zen, eta 16 urterekin hasi zen eskalada egiten. Pirinioetan asko ibilitakoa zen. Bere lehenengo irteera garrantzitsuenetakoa Yosemitearra eginiko ibilaldia izan zen.

Hala ere, Xabier Ansa Euskal Herriko mendizaleen artean Patagonian eginiko eskaladen ondorioz bihurtu zen oso ezagun: 1987. urtean, 24 urte zituela, Txema Egizabal donostiarrarekin batera Fitz Roy eta Cerro Torre gailurrak igo zituen. Lehenengo euskaldunak izan ziren. 1988. urtean Juanito Oizartzabal, Felipe Uriarte eta Jose Luis Zuloaga-

rekin batera 8.586 metroko Kangehenjungan-era igotzeko ahalegina egin zuten. 1989. urtean Himalayako gailurretan ibili zen, halaber, Joxe Montero eskalatzaille nafar adituarekin.

Mendia bizibide

Urte batzuetan AEKko irakaslea izan zen herrian, eta baita Irungo La Salle ikastetxean ere, hala nola Euskaldunon Egunkariko banatzaile lanak egin zituen Iruñean. Mendiarekin lotura zuten ofizioetan ere ibilia zen: umeen akanpaldiak, eskalada ikastaroak, eta abar. Dena den, ondorengo hitzok irakurrita, badi-rudi Xabierrek inoiz ez zuela pentsatu bere zaletasunak heriotzera eramango zuenik: "Nik heriotza ez dut bistaz ere ezagutzen, oraindik behintzat. Izan dut heriotza nahiko hurbil sentitu dudan momentu gogorra, baina ez naiz bistaz ezagutzeraino iritsi. Ez da jendeak

uste duen bezala: mendizaleok ez gara heriotza ukitzen ibiltzen. Nik heriotza benetan hurbil ikusiko banu, beste bide bat hartuko nuke. Bide honek ez du heriotzaren bidearekin zerikusirik". Aipaturiko argitalpenean jasotako adierazpenak dira.

Xabier Ansa goi mailako eskalatzaillea zen. Ezin esan, beraz, istripua trebetasun faltaren ondorioa izan denik, zorigaitzarena baizik.

APILEA

Matrikulazio epea irekita

Irailean hasiko den ikasturte berrirako Apilea elkarteak antolatutako ikastaroetan parte hartu nahi dutenek, uztailaren amaiera arte dute izena emateko epea irekita. Eskolatuta dauden gutxitu psikikoei zuzenduta daude ikastaro berriak, andoaindarrak izan nahiz kanpokoak izan. Interesatuak elkarteak Extremadura kalean daukan egoitzera joz eman dezakete izena edota telefono honetara deituz: 30 02 74



BORDA
Gatetxea

A N D O A I N



UDALA JOXE LIZASO ESTRADITATZEAREN AURKA

Edozein unetan estradita dezakete

Ekainak 27ko udal batzarrak aho batez onartu zuen Herri Batasuna alderdiak aurkeztu zuen mozioa. Mozioak La Santé-n - Frantzian- espetxeraturik dagoen Joxe Lizaso herritarra estatu espainiarrera ez estraditatzeko eskatzen du.

HBk aurkeztu zuen mozioaren lehenengo puntuak Estatu espainiarrak eta frantsesak estradizioa gatazka eta sufrimendua areagotzeko erabiltzen dutela azpimarratzen du. Beraz, mozioak dioenez, bakea lortzeko oztopoa da estradizioa. Era berean, errefuxiatuek Euskal Herrian aske bizitzeko eskubidea dutela jasotzen du mozioak. Azkenik, Udalbatzak hartutako erabakia Frantziako barne ministroari, herritarrei eta komunikabideei zabalduko die. Horrezaz gain, estradiziorik izan ez dadin ahaleginduko dela ere onartu du Udalak.

Jarraipen batzordea

Presoak Euskal Herriko gartzeletara ekartzeko jarraipen batzordea eratu da Asteasun. Herriko hainbat taldek eta alderdi politikoek hartzen dute parte bertan. Hala ere, zenbait arazo izan dituzte batzordearen erabaki ahalmenari dagokionez, eta Herri Batasunaren esanetan, "alkateak batzorde horretan erabakitakoa atzera botatzen du". Iñaki Amenabar alkateak berriz, organu erabakiorrak alkatea eta udal batzarraren osoko bilkura bakarrik direla adierazi du, "gainontzeko udal batzordeen erabakiak udal batzarrak berrreisi bebar ditu". Auzi hori konpontzeko



Udal batzarra

beste herrietako batzordeek nola funtzionatzen duten ikustera joan dira, eta datozen egunotan argituko dute jarraipen batzordeko kideen artean batzordearen izaera eta funtzionamentua.

Jaien ondorengoak

Igaro berri diren San Pedro jaietan zehar, hainbat Itxikizio egin dituzte herrian. Pello Errota eskolako zakarrontzi bat eta Erreka bailarako zenbait gutunontzi erre dituzte. Horrezaz gain, Upazan bailarako gutunontziak ere hautsi dituzte. Bestalde, Kultur Etxeko zortzi kristal hautsi eta gasaren hodi bat okertu dute.

SANTA MARINA JAIK

Uztailak 18, osteguna:

(Santamaña eguna)

10.30etan: Herri Meza

Ondoren: Bailarako jende helduarentzat bamaiketakoa.

13.00etan: Herri kirolak **Trialsin** saioa, trontza, korrika, txinga eta ahari jokoa.

Ondoren: **Zeberio** eta **Mañukorta** betsolariak. **Laja eta Landakanda** trikitalariak.

Arratsaldean

eta gauean: **Laja eta Landakanda** trikitalariek in erromeria.

Uztailak 19, ostirala:

Gaueko 22.30etan: Santamañako Igo mus txapelketa.

Ondoren: Trikitalari gazteekin erromeria.

Goizaldera: Txokolatada.

Uztailak 20, larunbata:

Gaueko 21.00etan: **Herri afaria:** Zikiroa eta barrikotea (afarirako txartelak aurretik erosi behar dira herriko tabernetan).

Ondoren: Trikibeltz taldearekin gau pasa.

Goizaldera: Baratzuri zopa eta oilaskoa.

Uztailak 21, igandea:

10.00etan: **Andazarreteko XI. igoera** (federatu gabeko txirindularientzat)

10.30etan: Meza.

Ondoren: Herri kirolak:

Harrijasotzaileak: Sarasola eta Landarbide.

Aizkolariak: Agite eta Olasagasti.

Ondoren: **Lizaso eta Murua** bertsolariak.

Laja eta Landakanda trikitalariak.

18.00etan: Kalejira

Gauean: **Laja eta Landakanda** trikitalarien erromeria.

KOADRILEN ARTEKO FUTBOL ETA PENTLATOI TXAPELKETAK

Uztailaren 27an eta 29an jokatuko dituzte finalak

Pentlatoi txapelketako saioak larunbat arratsaldetan egiten dituzte. Bertan parte hartzen dutenek, sokatiran, korrika, pilotan nola futboleant arituko dira. Koadriletak partaideen esanetan, azken urte hauetan lagunarte gutxiagok hartzen dute parte. Futbol txapelketa ordea, astean zehar jokatzen dute: astelchenetan, asteazkenetan eta ostiraletan, hain zuzen ere. Futbol txapelketak herrian arrakasta handien duen ekintza da, eta beraz, herritar ugari hurbiltzen da herriko plazara partiduak ikustera. Txapelketako sariak, finalera iristen diren koadrila guztiek jasoko dituzte: lagunartean egiteko afari ederrak, alegia. Beraz, ekintza horien bitartez Santiotako jai giroa prestatu eta herriari bizitasun pixka bat eman nahi diote.

Pilota txapelketa

Behar-Zana elkarte eta Amabilak euskara taldearen ekimenez, federatu gabekoen binakako eskuzko pilota txapelketa antolatu dute aurtengoan. Billabona eta Zizurkilgo bizilagunek parte hartuko dute, eta bi maila ezberdinetan banatu dira pilotariak: 35 urte bitartekoak eta 35 urtetik gorakoak. Pilota partiduetako final laurdenak uztailaren 18an jokatu dira, arratsaldeko zazpitan. Final erdiak berriz, uztailaren 23an jokatu dituzte herriko plazan iluntzeko zazpi terdian. Eta pilota txapelketari amaiera emateko, jaietan jokatu dute finala: uztailaren 28an, igandea.

Urteroko ohitura bihurtu da herriko koadriren arteko futbol txapelketa eta pentlatoi txapelketa antolatzea. Hogeita bi taldek hartzen dute parte futbol txapelketan, eta pentlatoi lehiaketan berriz, hamaika taldek. Santiotan jokatzen dira finalak, eta ekainean hasi eta festak iritsi bitartean, jo eta su arituko dira elkarren lehiari herriko lagunartek.




Talde ugari hartzen dute parte

FESTETAKO LANGILEEN KONTRATAZIOA

Aurreko urteetan bezala, aurtien ere Udalak 3 langile kontratatuko ditu Santio jaietan zehar lan batzuk egiteko. Interesatuak udal bulegoetan eman beharko dute izena uztailaren 17a baino lehen.

Uztailaren 18an, eguerdiko 12etan egingo da hiru langileak aukeratzeko zozketa udaletxeko batzar aretoan. Aurkeztu ahal izateko baldintzak: 1996ko urtarrilaren lehena aurretik herrian bizitzea, 18 urte beteta edukitzea, eta langabea izatea, bi urtez baino gehiago nahiz lehenengo lanaren bila ari izanik.



Gema

Loradenda

LORATEGIEN MANTENUA
KANPO NAHIZ
BARRUKO LANDAREAK

Kale Nagusia, 30 - ☎ 69 28 98 - BILLABONA

VIDEO CLUB AMETS



Bideo zintak
alokatzen dira

CDak elkar
trukatzeko eta
saltzeko kluba

Txermin kalea, 21 beheka BILLABONA

SOTO


elektrizitatea

- ELEKTROGAILUAK
- MATERIAL ELEKTRIKOA

Santiago kalea z.g BILLABONA
☎ 69 11 73

BABES OFIZIALEKO 56 ETXEBIZITZA EGINGO DITUZTE

Behiko Soro enpresak egingo ditu lanak



Urte l'ardi barru lehenengo hogeiak

Larrea auzoan eraikiko dituzte etxebizitza guztiak, eta hiru bloke ezberdinetan banatuko dira. Lehenengo 20 etxebizitzak lanerako baimena jaso eta urte l'ardi barru bukatu beharko dituzte. Gainontzeko 36 etxebizitzak berriz, bi urte l'ardi barru amaitu beharko dituzte, baina arrazoi ezberdinak direla eta. Udalak hiru urte gehiago luza dezake epea. Behin oinarriak adostu ondoren, berehala hasiko dira interesatuen izenak udallexean jasotzen: udarako lan horretan hasteko asmoa du Udalak. Joxi Mujika, alkateak, aurreratu digunez, bost eta hamar milioi pezeta bitartean balioko dute etxebizitzek.

Proposamen egokiena

Udalaren asmoa hasiera batean, babes ofizialeko 20 etxebizitza egitea zen, baina lan horiek egiteko aurkeztu ziren proposamenetako batek, Behiko Soro enpresarenak hain zuzen, 36 etxebizitza gehiago eraikitzeko proposamena egin zuen. Ondorioz, Behiko Soro enpresa kontratatu dute etxebizitzak egiteko. Behiko Soro enpresaz gain, Ondibia eta Vicon enpresak aurkeztu zituzten proposamenak.

GAZTETXOENTZAKO MENDI IRTEEREK ARRAKASTA HANDIA IZAN DUTE

Aizkardik aurki lokal berria inauguratuko du

Hasieran pentsatutako mendi guztietara igo dira orain artean, eta beste hiru irteera gehiago egin behar dituzte urtea bukatu baino lehen. Bi taldetan banatu zituzten izena eman zuten haur guztiak, baina pare bat irteera bi taldeak batera egin dituzte. Aipatu beharrekoa da ordean, haurren zenbait gurasok ere parte hartu dutela irteera batzuetan. Berezitasun gisa aipatu behar da gurasoek beren seme-alaben baimena behar dutela irteeretan parte hartzeko, "haurra aske eta gustura sentitzea nahi baitugu, loturik gabe ibiltzea, alegia".

Gaztetxoen afizio handia

Hamalau urte inguruko gaztetxoek mendizaleatasun handia erakutsi dutela esan digute Aizkardiko lagunek, eta talde hori bere kabuz ibiltzeko baliabideak eskainiko dizkiote aurrerantzean. Bestalde, udazkenerako martxan jarriko dute Parkeko eskoletan Aizkardi mendi taldeak izango duen lokal berria. Taldekideek egoitza herriko mendizaleen bilgunea izatea nahi dute.

Aizkardik antolatutako mendi irteeretara joateko izena eman zuten ia ehun lagunetatik erdiek hartu dute parte txango guztietan. Irteerak igandeetan egin izan dira, eta askotan, beste ekintza batzuk zirela eta, haur batzuek ezin izan dute mendira joan. Haurrak hilabetero igo dira mendiren batera, eta guraso batzuek ere egin dituzte ibilaldi batzuk. Gainera, eguraldi ona egin du irteera guztietan. Aizkardi menditaldekoen esanetan, helburua bete dute: hurrek ondo pasatzea, alegia.



Urtean zehar egin duten irteeretako bat



MILA IPINTZA, JUBILATUEN EGOITZAKO TABERNAKO NAGUSI BERRIA

Uztaila amaitu baino lehen ireki nahi dute egoitza

Eguneko menua jateko, afari ederrak egiteko edota lagunarteko kafea hartzeko berehala izango ditugu jubilatuen egoitzako ateak zabalik. Mila Ipintza zizurkildarrak zerbitzatuko dizkigu horiek guztiak, eta lana oso gogo onez hartu duela adierazi digu. Horrezaz gain, konponketa lanak direla eta, beren txokorik gabe luzaro egon diren jubilatuek berrituta aurkituko dute egoitza: ilepaindegia eta bulegoa jarri dizkiete, besteak beste.

Mila Ipintzak hogeita hamasei urte ditu, zizurkildarra da eta bi alaben ama. Senarraren lan egoera txarra delako hartu du jubilatuen egoitzako taberna, eta gainera, gustuko lana duela esan digu. Lasarteko Goiegí jate-txean bost urtetan egin du lan Milak, eta han ikasi ditu sukaldaritzaz jakin beharreko guztiak. Bost urtez bera izango dugu taberna eta jatetxeko nagusi.

Aiurri: Enkantean jarri zituzten taberna nabiz jatetxea eta aurkeztu zituzten bost proposamenetatik zurea aukeratu dute. Zenbateko proposamena egin zenuen?

Mila Ipintza: Gutxieneko proposamena egin nuen, hau da, bileran ebun eta hogeita bost milako

errenta ordaindu beharko dut. Baina bori ordaintzeaz gain, argia, langileak eta abar gehiago ere ordaindu beharko ditut. Nere senarraren lan egoera, herritarra izatea, eta gainera euskaraz jakitea baloratu dute beste zenbait gauzaren artean ni aukeratzeko orduan.

Ai: Noiz irekiko duzue taberna?

M.I.: Oraindik ez dakit, baina Udalak egoitzako lanak bukatu eta bilaren amaierarako irekitzeko asmoa dauka. Neri Billabonako jaietan taberna irekita edukitzea komeni zait. Bestalde, asteke zein egunetan itxiko dugun eta abar hitz egiteko daukagu; taberna eta jatetxea neutre eskuetan izango direla bakarrik dakit oraingoz.

Ai: Euskaldunak al zarete lanean arituko zareten guztiak?

M.I.: Bai, bai. Astean zehar lanean arituko garen sukaldaria eta biok euskaldunak gara, eta asteburuetan hartuko ditudan langileak ere bai.

Ai: Zein gauza eskainiko dituzue jatetxean?

M.I.: Eguneko menuak eskainiko ditugu, baita plater kombina-



Ekintzak ere antolatuko ditu

tuak ere gazte jendearentzako, batez ere. Parrilan erretako janaria ere prestatuko dugu; txitxarroa, txuleta eta abar. Janari mota ezberdina eta ugaria eskaini nahi dugu. Janaria prestatzen lehen jubilatuen egoitzan lanean aritutako sukaldaria arituko da nirekin batera.

Ai: Jubilatuen egoitzako garbiketara ere zure ardura izango da.

M.I.: Bai, jubilatuen egoitzaren ardura edukiko dut. Zenbait ekintza eta ekitaldi ere antolatu nahi ditut beraiantzako, eurek borrela nahi badute, noski.



AHOLKULARITZA
ARTEZKARITZA

IRAOLA

ENPRESEN AHOLKULARITZA:
FISKALA, DIRUKONTUENA,
JURIDIKOA, LABORALA,
ASEGURU OROKORRAK

Nagusia, 37
Tlf. 69 27 63
Fax 69 27 74
20150 BILLABONA

HERCULES

Aseguruak ARGENTARIA

Amalia Koviarena

Bulandegi bidea, 6 - Telf., eta Faxa 69 37 34

ZIZURKIL

Ngeltseritza
USABIAGA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa
Tel. 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

Andoain

CENIA IGOGAILUAK

28 urte igaro dira lehen igogailua egin zutenetik

Andoaingo Ama Kandida etorbidean jarri zuten orain dela hogeita zortzi urte Cenia enpresaren egoitza; gaur egun Espainia osoan dauzkate bulegoak. Lehenengo urteetatik hona Cenia asko hazi da, eta aldaketa batzuk

ere bizi izan ditu: duela zortzi urte Thyssen taldeko partaide bihurtu zen. Bestalde, hastapenetan urtean 250 igogailu inguru egiteko asmoa bazeukaten ere, gaur egun 1.250 egiten dituzte urtean.

Duela 28 urte enpresari gipuzkoar batzuk Italiara joan ziren, gustoko igogailu batzuk ikusi eta igogailuak egiteko enpresa bat eraikitzea bururatu zitzaizen. Horretarako Italiako puntako igogailu etxe batekin jarri ziren harremanetan. Italiarrek aditu bat bidali zuten Andoainera. Gipuzkoarrek azkar ikasi zuten, eta lantegi berria berehala hazi zen, inork uste baino arinago. Handik aurrera euren bidea bakarrik egitea erabaki zuten.

Gaur egun 26 bulego dauzkate Espainia osoan: Kanariar irletan, Madrilen, Bartzelonan eta Asturiasen garrantzitsuenak. Bulego nagusiak Andoainen daude, baina salmentak eta konponketak Espainian zehar zabalduta dauden bulego horietan guztietan egiten dituzte, halaber. Cenia 521 lagunek egiten dute lan: 180 Gipuzkoan eta Bizkaian.

Etxe, bulego edota denda handietarako igogailuak ezezik, eskailera mekanikoak eta garraiatzeko zinta mekanikoak ere egiten dituzte. Gaur egun 1.250 igogailu egiten dituzte urtean, eta ekoizpenaren %20-25a esportatu egiten dute: Europara ezezik, Hego Ameriketara eta Ekialdeko herrialdeetara ere.

Igogailu panoramikoak


Ceniako zuzendaria den Jose Luis Aresorekin eta Manuel Plaza, salmentazuzendariarekin hitz egin dugu Ce-

nian. Biak ere enpresa sortu zenetik daude bertan. Azaldu digutenez, igogailuen mekanismoa, berez, azken urteotan ez da asko aldatu: aurrera- penak beste arlo batzuetan gartatu dira: elektronika arloan eta diseinon, batez ere. Gaur egun bi abiadurako igogailuak ia ohikoak bihurtu dira, eta diseinuari dagokionez, araudiak horretarako baimena ematen duenetik, igogailu panoramikoak oso modan jarri dira zenbait eraikun-

tzetan, hau da eraikuntzaren barrenean kokatu beharrean, bistan dauden igogailuak. "Herrialde arabiarretan horrelako asko saltzen ditugu", esan digute.

Urtean egunero eta 24 orduz telezerbitzua

Euskal Autonomi Elkarteak araudiak dioenez, 12 metrotik goiko eraikuntzetan igogailua jarri beharra dago, hala ere gaur egun, familia bakarrek etxebizitza batzuetan ere, igogailuak jartzen ari dira. Orain dela urte batzuk igogailuetako ate zaharrak kentzea ere agindu zuten, eta gaur egun derrigorrez, automatikoak jarri beharra dago. Baina denbora gutxi barru igogailu guztiek nahitaez izan beharko duten zerbitzua, telezerbitzua da. Aurrerantzean, norbait igogailuaren barruan irten ezinik geratuz gero, telefono dei bat egin eta dagokion enpresatik erantzungo diote berehala, eta ahalik eta azkarren jarriko dute teknikaria bidean. Horrez gain, kontrol gune horretatik bertatik igogailua aztertu ahal izango dute, konponketa azkarragoa izan dadin. Ceniak egunean 24 orduz, urte osoan zehar eskaintzen die telezerbitzua nahi duten bezeroei.



Sabin Etxeko igogailua



TUBERKULOSIA

Iñigo Agirre: "Garai bateko ospe txarra du oraindik tuberkulosiak"

Azkenengo urteotan, oro har, leku guztietan tuberkulosiak jotako gaixoak ugartu egin dira. Gaur egun ongi sendatzen den gaixotasuna da, baina hala ere, oraindik badu garai bateko ospe txarra, eta jendearen artean normalean larritasuna eragiten du. Andoaingo osasun zentroko koordinatzailea den Iñigo Agirrerengana jodugu tuberkulosiaz, bere sintometaz eta sendabideaz hitz egiteko. Era berean, ahoz aho jendeak darabilen informazio okerra zuzendu nahiko genuke, hein batean.



Tuberkulosiak jotako gaixo baten birrikak

Tuberkulosia gaixotasun kutsakor eta infekziosoa da. Koch deituriko baziloa arnabideetan edo liseri-hodian barrena sartu ondoren kutsatzen da. Kutsadura gertatu ondoren, ageriko sintomarik gabeko aldi bat iragan ohi da. Aldi horretan X izpien bitartez soilik ikus daitezkeen biriketako lesioak agertzen dira. Gehienetan sintoma gehienak hainbat hilabete edo urte igaro ondoren agertzen dira. Orduan edozein organo gerta daiteke kaltetua, baina normalean birrikak izan ohi dira. Sintomarik arruntenak bularreko mina, eztula, arnasketa-zaratak, sukarrak eta argaltzea dira.

Aipaturiko sintomak dituen gaixoa medikuarengana joanez gero, X izpiak egiteko eskatzen zaio normalean, eta tuberkulosiak jota egonez gero, biriketetan nolabaiteko putzea, orbaina edota batzuetan zuloa ikusten da. Bestalde, tuberkulina edota Mantus deituriko froga egiten da, eta positiboa emanez gero, gaixoa kutsatuta dagoela esan nahi du.

"Sei hilabete behar dira, gutxienez, tuberkulosia sendatzeko"

Orain dela oso gutxi arte gaixoek bederatzi hilabeteko tratamendua behar izaten zuten. Gaur egun, sei hilabetez aritzen dira egunero hiru motako pilulak hartzen. Aldian aldiko kontrolak eta analisiak egin behar izaten dituzte, gainera, tratamenduak gibelean kalteren bat eragiteko arriskua baitauka.

Prebentzioa

Gaixoari sendabide egokia jarri ondoren, inguruko kutsadurak ekiditea izan ohi da hurrengo lana. Kutsatzeko arriskua duten bakarrak etxe berean bizi direnak, edota oso harreman estua duten neska edota mutil laguna, eta bazuetan lankideak izaten dira. Froga berdina egiten zaie horiei. Oso gutxi izaten dira, normalean, kutsatuak. Dena den, litekeena da froga egin eta tuberku-

linak positiboa ematea. Horrek ez du derrigorrez kutsatuta dagoenik esan nahi. Gehienez ere bazilo kutsakorarekin kontakturen bat izan duela esan nahi du, baina ez du gaixotasunak jota egon beharrik. "Gaur egun tuberkulina froga eginez gero, askok emango lukete positibo. Inoiz edo bebin baziloarekin harremanen bat izan duetela esan nahi du horrek -azaldu digu Iñigo Agirrek-, baina normalean gorputzak berak gainditzen du gaitza, gaixotasunetik eragin gabe". Huaurren kasuan ordea, ikasgelaren batean adibidez, baten bat kutsatuz gero, guztiei egiten zaie froga, haurrek arrisku handiagoa baitute.

Osagileak, gaixoarekin harreman estua duen baten batek tratamendua egin behar duela erabakitzen badu, gaixoak bezala, sei hilabeteko tratamendua egin behar izaten du, baldin eta 25 urte baino gutxiago baldin badauka. Hortik gorakoengan prebentzio tratamenduak onurak baino, ondorio kaltegarriagoak eragin ditzakeela uste baitute adituek.

“Oso gaixotasun gogaikarria da”.

Iñigo Agirrek berak eta gaixo batzuk esan digutez, nahikoa gaixotasun gogaikarria da: lehenengo asteak igaro ondoren, gaixoa poliki-poliki ohiko bizitza egiten has daiteke, baina hutsik egin gabe, jarraitu behar izaten du tratamendua, eta guztiz debekatuta dauka alkohola edatea, adibidez.

Azken urteotan, adituek diotenez, tuberkulosiak gora egin du, horretarako arrazoi jakinik gabe. Hala ere,

nabarmena izan da, esate baterako, IHESak jota dauden gaixoen artean tuberkulosia asko ugaldtu dela: *“Kasu horietan gaixoak ia ez du defentsarik gorputzean, eta erraza da tuberkulosia hartzea”.*

Antibiotikoak existitzen ez ziren garaian tuberkulosia Europan heriotz kopuru gehientsua eragiten zuen gaitza zen. Gaur egun, geldi samar baina ongi sendatzen da. Salbuespenak salbuespen, gaixoen %100a sendatzen da, eta ia inor ez da berriro gaixotzen. Hala ere, tuberkulosiak oraindik ere badu garai bateko ospe txarra, eta Iñigo Agirrek adierazi digunez, baten bati tuberkulosia daukala esanez gero, larridura eta harridura aurpegia jartzea izan ohi da ohikoena.

ANDAZARRATEKO TUBERKULOSOEN SANATORIOA

1931-1956

1931. urtean, Espainiako II. Errepublika aldarrikatzearekin batera, inauguratu zen Asteasu eta Aia artean dagoen Andazarrateko gainan *Sanatorio de tuberculosos* deiturikoa. Bertan ehundik gora gaixo egoten ziren, heriotzaren atarian gehientsuenak. Asko eta asko meategi eta lantegi zuloetan birrikak hondatutako langileak izan ohi ziren. Hildako asko Asteasuko hilerrian lurperatzen zituzten.

Garai hartan ez zen tuberkulosiaren aurkako tratamendu egokirik, eta gaixoei normalean, biriketako bat behar baino gehiago hazten zitzaionean, alde bateko saihetsak kentzen zizkioten. Oso gaixo zeudenei, birika ere kentzen zieten, azkenean.

“Elizan bereiztuta jartzen ginen: gaixoak aurrealdean, herritarrok atzerago”

Intxusa Goiko Joxe Izagirrek kontatu digu sanatorioari buruz aipaturiko guztia: *“Inguruko baserrietakok barreman handia izan ohi genuen gaixoeekin, eta baita moja eta medikuekin ere, besteak bestek, mojak askotan etortzen zirelako baserrira esne edo arrautza bila. Inguruetan paseoan ibiltzen ziren gaixoeekin ere bitz egiten genuen, eta igandeetan mezan elkartzen ginen: gaixoak aurrealdean jartzen ziren, eta gu pixka bat atzerago”.* Asteasun ez omen zen gaixoen eraginez inor kutsatu, hala ere, Joxek jendea beldur izaten zela aitortu digu.

1936. urtean, Francoren diktadura ezarri ondoren, *Sanatorio 18 de Julio* izena eman zioten. Gerra garaian gaixo kopurua asko handitu zen, jendea erabat ahulduta zegoen, gosearen eraginez, eta gaixotzea erraza zen. Handik hogeitaz gero kendu zuten sanatorioa, gaixoak egoteko hasieran bezain toki osasuntsua baldin bazen ere, beste era batzuetako gestio lanak egiteko, Andazarrate urrutiko samar zegoelako. Joxe Izagirrek berak lagundu omen zuen sanatorioa utzi zutenean altxariak eta trasteak kentzen: *“Pena izugarria hartu genuen, edozein larrialditarako medikua bantxe bertan genuelako. Baserritar askok lanean zauritu eta bertan hartu genuen tetanoaren aurkako txertoa, adibidez”.*



◀ Joxe Izagirre

◀ Sanatorioa 1941. urtean



MERCEDES ITURRALDE

Gipuzkoako haur etxeko zuzendaria

Mercedes Iturralde moja andoaindarra gaur egun Donostiako Berio auzoan dagoen haur etxeko zuzendaria da, orain dela urtebete arte Zizurkilen Diputazioak Fraisoron zuen haur etxe bereko zuzendaria, hain zuzen ere. 1903. urtean inauguratu zuten garai bateko Caja de Ahorros

Provincial eta Diputazioak etxea, eta urte haietako kronikek diotenez, Espainiako onena izatera iritsi zen. Denborak gauza asko aldarazi ditu, baina Fraisoro haur etxeko Karitateko Amek kaxako haurrak duela ia ehun urte bezain maitekiro zaintzen dituzte gaur egun.

- Aiurri: Kontaiguzu labur Fraisoro haur etxearen historia?

- M. Iturralde: 1903. urtean inauguratu zen etxea. Lehenengo urteak oso gogorrak izan ziren: ez zegoen garbitasun eta osasun bitarteko handirik, eta hildakoen kopurua handia zen. Hala ere, etxean egokitutako zerbitzu berrien ondorioz, epe laburrean jaitsi zen portzentaia. Garai hartan amarik gabeko umeak hazteko bularreko esnearen behar handia zegoen, eta baserritarren artean bilatzen ziren, batez ere, amaordekoak. Denborarekin haur txikiak semeordekotzat hartzen zituzten baserri askotan. Urte batzuetan ume kopuru handia egon zen, eta euren benetako amak edota amaordekoak hartu nahi ez bazituzten, zazpi urte bete ondoren, Toledoko Benefizentzia Etxera eramaten zituzten.

- Ai: Garai hartan kaxako haur kopurua handia al zen?

- M.I.: Oso handia. Idatzietan jasota dagoenez, 1906. urtean Fraisoro haur etxea, Gipuzkoan bakarrik zegoen umezurtz kopuruari erantzuteko txikiegia dela esaten da, eta kontuan hartu behar da Fraisoron Euskal Herriko kampoko haurrak ere jasotzen zirela.

- Ai: Zergatik horrenbeste haur abandonatu?

- M.I.: Normalean, neska gazte ezkongabeen haurrak izaten ziren, garai hartako obiturok eta moralak ez baitzuten borrelakorik ametitzen. Normalean haurra egin baino bihurtu hilabete lehenago joaten ziren Fraisorora. Haurra izan eta gero, nor-

malean bularra emateko amaordeko nabikorik izaten ez zenez, bilabetez beren seme-alabei bularra eman behar zieten, eta ondoren joan egiten ziren. Beste batzuetan amak haurrarekin gelditzea erabakitzen zuen, eta haurrak bi urte bete arte Fraisoron bertan bizi ziren biak. Diputazioak berak emandako dirulaguntzari esker.

“Garai batean ez zen bularra emateko nahikoa amaordekorik egoten”

- Ai: Gaur egun zenbat haur daude Berioko haur etxean?

- M.I.: Joan-etorri handiak izaten dira, baina normalean 15-20 haur inguru daude.

- Ai: Zergatik daude haur etxean?


- M.I.: Gaur egun, emakume ezkongabeek abandonatutako haurrik ia ez dago, gehienak tratu txarrak jasotako umeak dira, eta baita gutxitu fisiko eta psikiko batzuk ere. Sei urte bitarteko haurrak hartzen ditugu bakarrik. Dena den, gaur egun haurrak ez dira haur etxera lehen bezain erraz ekartzen. Gaur egun, adituek eta esperientziak hala erakutsi digulako, azken unean, haurra benetan gaizki dagoenean bakarrik kentzen zaio familiari haurra. Adibide berrigarriak izan ditugu hemen: gurasoengandik oso tratu txarrak jasotzen



Mercedes Iturralde haur etxeko zuzendaria

zituzen haurrak bona ekarri, eta berriro ere etxera itzuli behar izan, hemen ez zirelako moldatzen. Azken finean, haurarentzat bere gurasoak ezin ditu inork ordezkatu. Horregatik, bona ekarri aurretik, familiari abalik eta laguntza gehien ematen saiatzen gara etxean bertan, haurra kendu aurretik.

“Gaur egun tratu txarrak jasotako haurrak dira gehienak”



Fraisorotik Donostiara eraman dute ponte

- **Ai:** Nola iristen dira bona baurrak?

- **M.I.:** Ertzantzaren bitartez ezagutu obi ditugu tratu txarrak jasotzen dituzten baurren kasu asko. Bestalde, baurdin egon, eta baurra izan nabi ez duten emakumeen kasuan, ospitalaren edota gizarte laguntzaileen bitartez jakiten dugu. Amak baurra izan eta gero, ez du umea ikusten, eta guri ematen di-

gute. Izen-abizen batzuk asmatzen ditugu, eta erregistroan ematen dugu izena. Baina ez ditugu batatzen, hori guraso berrien aukeran uzten dugu.

- **Ai:** Zer bizimodu egiten dute hemen baurrek?

- **M.I.:** Normalean, baurrak hemen hartzen ditugunean oso moral baxua izaten dute, nahikoa triste etortzen dira. Horregatik, maitasun pixka bat eskainiz gero, berehala zuzperten dira, eta azkar egokitzen dira bizimodu berrira. Gainerakoan, bi urtekin eskolan hasten dira, eta beste baurrek egin dezaketen bizimodua eskaintzen saiatzen gara. Guraso batzuek, hona etorri eta beren baurrak tarteka ikusteko aukera izaten dute.

bailehen nabi izaten dugu, bestela maitasun handia hartzen diegu baurrei, eta guk ere asko sufritzen dugu etxea utzitakoan. Gainera, familiek ez dute urte batzuk dituzten baurrak nabi izaten, jaioberririk nabi dituzte, normalean, baurrak txikitako benetako gurasoan oroitzapenen bat gordeko ote duen beldur izaten dira eta, guraso berriak, eta hemen zenbat eta denbora gehiago eman, badakigu adopzioa orduan eta zailagoa dela.

- **Ai:** Haurrak adoptatu nabi dituen jende asko al dago?

- **M. I.:** Bai, asko. Bost urte zain daramaten bikoteak ezagutzen ditut, la denak baurrak izan ezin duten bikoteak dira. Badakit bikote asko, luze itxaron eta gero, atzeritik haurrak ekarri izan dituztela. Baina nik aholkua emango nieke prozedura guztia legez egin dezaten, bestela beti dago arriskua egunen batean benetako gurasoak burraren bila hasi eta aurkitzeko.

- **Ai:** Semeordekoari adoptatua dela esan behar al zaio?

- **M.I.:** Bai, lehenbailehen, gainera. Denbora igarotzen utziz gero, baurrak berria kanpotik ezagutzeko arriskua dauka, eta hori oso mingarria izan obi da.

- **Ai:** Makina bat haurren amak izan zarete baur etxean!

- **M.I.:** Bai, balaxe da, horregatik, urteak joan, urteak etorri, gu beti gazte. ■

“Haur jaioberririk nahi izaten dira adoptatzeko”

- **Ai:** Noiz arte egoten dira baurrak?

- **M.I.:** Familiaren batek adoptatu nabi izan arte, eta guk lehen-



ogi berezi eta artesauak
...
etxerainoko zerbitzua

OKINDEGIA, S.L.

OGI·GOXO



• TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK
• TEILAK-ZIGARRILOAK
• HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA



TESTU LIBURUAK
(O.H.O. B.B.B. L.H. ...)

ESKOLARAKO
OSAGARRIAK

JOKO
DIDAKTIKOAK

IRAKURKETARAKO
LIBURUAK

ALDIZKARIAK

PAPERDENDA

**KURTSO GUZTIETARAKO
TESTU LIBURUAK
DAUZKAGU**

BILLABONA

Kale Nagusia, 29 ☎ 69 16 51



OPTIKO - OPTOMETRISTAK

**EGUZKITAKO
BETAURREKOTAN
AUKERA ZABALA**

Kale nagusia 9 -20140 ANDOAIN
☎ 59 18 17

Andoain

RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIAK

Kultur ekitaldiz betetako aste oparoa

Hauiek izan ziren sail ezberdinetan saritutako lanak eta egileak: "Balorazioko kazetaritza" sailean, Xabier Mendiguren idazleak jaso zuen saria Euskaldunon Egunkarian argitara emandako "Elurraren bertuteak" deituriko lanagatik. Sail berean Andoni Lekuonari aipamen berezia egin zitzaion, egunkari berean plazaratutako "Rabin, profeta berria" deituriko lanagatik. "Erreportaia" atalean, bi izan ziren lan irabazlearen egileak: Imanol Murua eta Humberto Unzueta kazetariak, era berean Euskaldunon Egunkarian argitaratutako "Urtebete elkarriketaren zain" izenburupeko erreportaia izan zen saritua, hain zuzen ere. "Saiakera laburra" atalean, Joseba Arregi izan zen sariduna, Uztaro aldizkarian argitaratutako "Europa bakarra, Europa anitza" idatzia dela eta.


Euskadi Irratia eta Lapurdi Irratia

"Komunikabideen berrikuntza" deituriko atal berrian sarituak Euskadi Irratia eta Lapurdi Irratia izan ziren. Bakoitza bere neurrien arabera, irratia informazioaren bultzatzea izan da sariaren arrazoia. Euskadi Irratiak informazioaren eta digitalizazioaren bidetik aurrerakuntza nabarmena burutu duelako. Lapurdi Irratiak, Euskadi Irratiak zati batean egindakoaren antzera, emisioen automatizazioa ahalbideratzen duten errazmentak eskuratu ditu, eta bere baliabideak apalak izan arren, emisio orduak gehitu ditu. Lapurdi Irratia 1992. urtean sortu zen, eta beste irratietan eskaintzen ez diren programak ematea eta kristauen ahotsa entzutea dira bere helburuak.

Aurten prentsa idatzia, irratia eta telebista

Guztira 150 lan baino gehiago aurkeztu dira aurten. Bestalde, kazetari hasi berri edo hastear daudenezat bereziki sortutako "Irrati-telebistarako

Andoaingo Udalak urtero antolatzen dituen Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien egitaraua osatzeko, interes handiko kultur ekitaldiak izan dira aurtengo zortzigarren edizioan. Lehenengo eta behin Joseba Arregik "Rikardo Arregiren pentsamendua euskal herrigintzari buruz" izeneko hitzaldia eskaini zuen. Biharamunean aurreko edizioetako lan irabazleak bildu dituen liburuaren aurkezpena egin zuen Udalak, eta ilunabarrean "Biharko euskal komunikabideak" izenburupeko mahaingurua izan zen. Ekainaren 29an, larunbata, ohikoa denez, sariak banatu ziren, eta aurten bereziki, Gerra Zibila garaiko eta aurretiko euskal kazetariari omenaldia egin zitzaion.



Arg. Ander Gilenea

Lehenengo eta oraingo kazetariak

gidoigintza" atal berrian ez da lanik aurkeztu. Aurtengo zortzigarren edizioan aldaketa nabarmenak izan dira sariari dagokienez, besteak beste, hiru atal berri sortu direlako, eta sariak ez direlako prentsa idatziaren alorrera mugatu. Aldaketaren arrazoia euskal komunikabideetan eta ondorioz informazioaren ugaltzea izan da batik bat, horregatik, aurten eta baita aurrerantzean ere, kazetari idatziaren kalitatea bultzatzea izango da sariaren helbururik nagusiena.


Ohorezko aipamena

Orain dela 60 urte piztu zen Gerra Zibila garaiko eta aurreko kazetariari ohorezko aipamena eta omenaldia egin

zitzaion sari banaketan, euskal kazetaritzaren iragana eta etorkizuna uztartu nahian. Honako gizon-emakumeok jaso zuen aipamen berezia: *Argia*, *Ekin*, *Euzko* eta *Euzkadi* aldizkarietan eta *El Día* eta *Eguna* egunkarietan idatzi zuten Sebastian Lizaso, Iñaki Eizmendi, Romana Elustondo, Joxe Mari Etxaburu, Martin Gallastegi, Felipe Lizaso, Alejandro Mendizabal, Maria Juliana Orbegozo, Paulin Sorozabal eta Agustin Zubikarai. Gaurko euskal kazetariaren abiapuntua eta oinarria izan zirenen izenean, Agustin Zubikarai eskerroneko hitzak eskaini zituen, besteak beste, lagun izan zuen Rikardo Arregi zena gogoratuz.

"RIKARDO ARREGIEN PENTSAMENDUA EUSKAL HERRIGINTZARI BURUZ"

Joseba Arregik Larramendi Kultur Bazkunak "Rikardo Arregi, gizona eta garaia" izenburupean argitaratuko duen libururako atal bati dagokio aipaturiko hitzaldia. Bertan Rikardo Arregik 60.eko hamarkadaren amaieran batez ere, hil aurretik, idatzi zituen idatziak beraztertu ditu Josebak. Hiru ezaugarri nabarmen nagusitzen dira berrietan: bizi joera ezkertiarra, gaztea eta inkonformista. Garaiko gazte gehienetan bezala, marxismoak, Rikardoren kasuan, nolabaiteko marxismo humanistak izandako eragina azpimarratu zuen, ezarritako sistema politikoa, edozein eratako dogmatismoa eta kapitalismoa eta kontsumismoa gainditzeko bide gisa. J. Arregiren esanetan, gizakiaren askatasunari eta euskal izazari eusteko beti agertu zuen grina da, gaur egun bere idatzi eta pentsamendutik berreskura daitekeen ideiarik nagusiena.




RIKARDO ARREGI
KAZETARITZA
SARIA

LIBURUAREN AURKEZPENA

"Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak" izenburupean Andoaingo Udalak aurreko zazpi edizioetan saritutako lanak jaso dituen liburua argitaratu du, 27 idatzi guztira. Argitalpena aro berri baten hasierarekin batera etorri da, izan ere, sariak orain arte prentsa idatzira mugatzen baziren, aurtan nahiz aurretantzean irratira eta telebistara zabaldu dira sariak. Andoaingo Udalak herriak saritutako lanen balorazioa egin dezan nahi du. Liburua herriko liburudendetan nahiz udalletean dago 1.000 pezetatan salgai.

TEKNOLOGIA BERRIEN ERRONKA

Angel Lertxundi idazleak, Iñaki Zabaleta irakaslea eta ETBren zuzendari ohiak, Luis A. Aranbarrik egin zuten mahainguruan euskal kazetaritzak etorkizuneko teknologia berriei aurre egiteko gai izango den ala ez izan zuten hizpide. Teknologia berrien erantzukizun politikoa eta medioen kontrola noren eskuetan egongo ote den izan zen hizlarien kezkarik nagusienetako bat. Besteak beste, aurrerantzean euskal medioak finantzatzeko erakundeen dirulaguntzarik ez dela izango esan zen, eta euskal komunikabide ez-ofizialak merkatuaren legeen arabera moldatu beharko direla. Guztiek jarri zuten zailtzean euskal komunikabideek etorkizunean bizirik irauteko merkatu esparrurik izango ote duten.



RIKARDO ARREGI
KAZETARITZA
SARIA

EGUBERRIETAKO KANTU SAIOA, ZIZURKIL GOIA. 1.976.



Duela hogei urte inguruko argazkia dugu honako hau. Buruan txapela eta lepoan zapia zutela, etxez etxe ibiltzen ziren orduan ere neska-mutil kozkorrak Eguberri bezperan. Batean *Hator Hator* abesten zuten, bestean berriz, *Olentzerro*, eta egunaren amaieran jasotako diru gutzia batu eta gorde egiten zuten, izan ere, ikasturtea bukatzean egiten zuten txangoa ordaintzeko behar zuten diru hori.

Argazkia Zizurkil Goiko Arripitxi baserriaren parean atera zuen **Patxi Otegik**, eta argazkian ageri den astoa ere baserri bere-

koa da. Neska-mutikoen izenak **Josetxo Izagirrek** argitu dizkigu, nahiz eta zenbaitzuenak ezin izan ditugun asmatu edota ezin izan ditugun ziurtatu.

Aurrean ezkerretik eskuinera: Jesus Maria Campos. Josetxo Izagirre, Arripitxiko astoa, Jose Manuel Otegi eta Aitor Sarasua.

Atzean ezkerretik eskuinera: ezezaguna, Jaxone Agirrezabalaga, ezezaguna, Iñaki Urkola, Inazio Campos eta Jabier Tapia.

**FRANCISCO
MENDIKUTE
HABATEGIA**



Kalxetiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

MIRARI
ILEAPAINDEGIA

1996ko azararen 12a

ANDOAIN

Jose Ramon
— TABERNA —

PINTXO EDERRAK !!

Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN

Mari Carmen Rodríguez Billabonako bake epailea



- Zein da bake epailearen egitekhoa?

- Auzitegira jo gabe, gatazkak konpontzeko bitartekari lana egiten du bake epaileak. Hori teoria da, baina praktikan auzitegien eta herritarren artean bitartekaritza eta gestio lanak egiten ditugu gero eta gehiago. Herritarrek hona etor daitezke beren deklarazioa egitera. Donostia-ra edota Tolosara joan gabe. Bestalde, bake epaileak herrian bertan auzi batzuk ere egin ditzake. Horrezaz gain, herriko erregistro zibilaz arduratzen gara: jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak. Bikoteak ere ezkontzen ditugu. Billabonako bulego bonetan asko ezkontzen dira.

- Bitartekaritza lanek orduan indarra galdu dute?

- Egia esan, bai. Edadekoek jotzen dute, batez ere, bake epailearengana. Gazteek normaleak, ez dakite bake epaileak zertarako balio duen ere. Orain gainera, dagokion salaketa egin eta askoz ere errazago jotzen da epaitegira. Jendeak nabia du auzi burukratikoetan murgildu, aurrez aurre elkarrizketaren bitartez, arazoak konpontzea baino.

- Zein gatazka mota izan obi dira obikoenak?

- Bizilagunen arteko istiluak konpontzeko etortzen dira herritar asko: goikoak behekoari ura botatzen diolako, zarratak direla eta ez direla, eta abar. Baserritarren artean baten eta bestearen lurak bereizten dituzten mugen inguruko auziak nabikoa ugariak izaten dira ere. Hala ere, garai batean orain baino gehiago, laz 2.000 kasu izan genituen, dena den.

- Nola aukeratzen da bake epailea?

- Bake epaile izateko baldintzak hauek dira: auziperatuta ez egotea, 18 urtetik gorakoa izatea, irakurtzen eta idazten jakitea eta bertakoa izatea. Deialdi bat egoten da, herritarrek aurkezten dira, eta udal batzarrak egiten du aukeraketa. Lau urteren buruan herriro egiten da deialdia. Nik zortzi urte bete ditut ia, eta ez dakit herriro aurkeztuko naizen, Egia esan, lana gero eta konplikatua da.

- Zergatik erabaki zenuen aurkeztea?

- Lehenengo eta behin argi eta garbi azaldu behar da hau ez dela lanpostu bat, jendeari laguntzeko bokazioa eta gogoia izan behar da funtsean bake epailea izateko. Justiziaren mundua asko gustatu izan zait betidanik.


- Ez al zaizu erantzukizun handia iruditzen?

- Lana ongi egin nahi baduzu, bala da. Herritarrek zure lana ontzat ematea da garrantzitsua.

- Auzi zailarik tokatu al zaizu?

- Bizilagunen arteko gatazka bat izan da gogorrena. Bost aldiz bildu ginen arazoari irtenbideren bat bilatu nabilan, eta ez genuen lortu, eta badakit arazoak jarraitzen duela eta okerrera egin duela, gainera. Baina bizilagunek ez dute epaitegira jo nahi. Arazoa ez da, berez, oso zaila konpontzen, baina bizilagunak zeharo tematuta daude, eta inork ez du amore ematen. Kasu gebienak, normalean, horondate kontuta izan obi dira, eta konponketa orduan ez da erraza izaten, jendeak ez du bake epaileak bitartekaritza lana egin dezan nahi; jendeak berari arrazoi eman diezaiotzun nahi du. Bake epaileak lagundu eta iritzia eman baino ezin dezake egin, azken erabakia beti dago bertien esku.

PERTSONAIA EZKUTUA



Aiurriren irakurleek asmatu beharreko pertsonaia berria duzue zirriborroaren atzean ezkutatuta.

Saria bikaina da oraingo honetan ere: **Andoaingo Bikoitz argazki dendak estudioan eginiko argazki erreportaia** eman digu oparizat. Irabazleak argazkiak estudioan egin ondoren, album batean jaso ahal izango ditu.

Lehiaketan parte hartu nahi duzuenak bidal itzazue zuen gutunak honako helbidera lehenbailehen: **Aiurri aldizkaria, Doktor Huizi 15, behea, 20140 Andoain.**

- Argazkiak errebelatzen ditugu
 - Estudio argazkiak egin
 - Karnet argazkiak instantean
 - Ezkontza erreportaia.
- Argazkiak, bideoak

FOTO-BIDEO-ARGAZKI

KALE NAGUSIA, 19 behea

☎ 30 07 27
ANDOAIN

B
I
K
O
I
T
Z

IBILALDIAK

ANDOAIN

Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta:

Uztailak 13-14: Logibar-Holtzarte-Sarimendi (1.485m)-Kakoeta. Bost ordu l'erdiko ibilbidea.

BILLABONA

Aizkardi mendi taldeak antolatuta:

Uztailak 13-14: Pirinioetara ibilaldia: Neouvielle (3.192m)

MUSIKA

ASTEASU

Uztailak 13: Ozenki abesbatzaren emanaldia Lizardi Etxean arratsaldeko zazpitan.

BESTE

ANDOAIN

Uztailak 20: Haur parkea: ohe elastikoak, puzgarriak, tren txikia... Goikoplazan 11.30-13.30 eta 17.00-20.00.

Uztailak 25-abuztuak 4: AHT-ren aurkako akanpada Anoetan. Era askotako ekintzak antolatuko dira: tailerrak, mendi ibilaldiak, hitzaldi-etzabaidak, protesta ekintzak, kontzertuak, erakusketak, antzerkia, zinema, bideoa emanaldiak eta abar.

DEIALDIA

SANTIOAK
BILLABONAN

Santio jaietan erraldoi edo buruandi bezala atera nahi dutenei jakinarazten zaie datorren uztailaren 19ko eguerdian, 12.00ak baino lehen eman beharko dutela udal bulegoetan izena. Bi erraldoi eta lau buruhandi behar dira guztira.

Dispertsio politika krudela martxan jarri zela iada 9 urte bete diren honetan, legez kanpoko egoera honetan klase politikoaren ardura gero eta nabarmenagoa suertatzen da.

9 urte behar izan dira kontura daitezen dispertsioa ilegala dela eta euskal preso eta beren senitartekoen eta lagunen giza eskubideak urratzen dituela. Bestela, gogoratu besterik ez dago Gerba billabonarraren emazte eta bi lagunek izandako istripua.

Klase politikoak jarri zuen martxan dispertsioa, batzuek discinatu eta beste batzuek laguntza eskainiz, beraz, klase politikoak asumitu beharko ditu dispertsioaren eraginak. Zentzu horretan kokatu behar dira Senideak elkarteak aurkeztutako mozioarekin hasten den prozesua, tartean, dispertsioaren kostu ekonomikoen ardura, oso partzialki bederen asumituz. Ekimenak, bestalde, billabonar asko eta askoren laguntza erabatekoa jaso duelarik.

Dispertsioak ez du erremedioen beharrik. Presoek Euskal Herrian egon behar dute, beren eskubidea da: euskaldunak direlako, beren izaera politikoa dela eta, euskal preso politikoaren kolektiboa osatzen dutelako, herri honen erakuntzan beren iritzia eta usteak plazaratzeko eskubide osoa dutelako. ELKARTUTA, eta gizakiak direnez, beraz, oinarrizko eskubide batzuk dagozkie.

Besarkada bat euskal preso billabonarrei: Gerba, Alex eta Ageri, eta oro har, errepresaliatu guztiei.

BILLABONAKO AMNISTIAREN ALDEKO KOMITEA

KOMIKIA

"... bihar eguzkiaren izpiekin abiatuko naiz mendialdera piztiekin nire anaiekin elkartzera."

XABIER ANSA

GERO ARTE XABIER

ONDARRETA TABERNA



**Plater konbinatuak
ogitartekoak
pintxoak**

**Arkume eta
txerrikume erreak
enkarguz**

●ondarreta 9, behea ☎ 59 36 27 ANDOAIN

**AURRERA
TABERNA**

Girorik ederrena gazteriarentzat!!
ZIZURKIL



**XIXORI
BELARDENDA**

DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - ☎ 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

ITAMAR

Nagusia 28 - ☎ 69 39 31 - BILLABONA
OPARIAK - BITXIAK - MODA

SOLARIUM ZERBITZUA

ZURE AZALA PREST UDARAKO

BENITO

**HARATEGIA
URDAITEGIA**

Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49
Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50

B I L L A B O N A

OSABU

Etxebizitzen salerosketa

Kaleberria, 58 ☎ 69 08 94
BILLABONA

**Ormendik
Kirolak**

**AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN**



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

**PATXINE
JATETXEA**



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL
SUKALDARITZA ETA ETXEKO POSTREAK
Errementari, 1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU

GOROSTI HERBORISTERIA

**DIETETIKA
ZERBITZUA**
ARGALTZEKO ETA
SENDOTZEKO
TRATAMENDUAK

**BELARDENDA ETA DIETETIKA
INTSENTSUA ETA KANDELAK
TERAPIA ALTERNATIBOEI BURUZKO
AHOLKUGINTZA
METODO BIOLOGIKOAK ERABILIZ HAZITAKO
PRODUKTU NATURALAK**

OSASUNA LANDAREEN BITARTEZ

Txermin kalea 13, behea
☎ 69 20 56
Billabona



fotocolor

ERREBELATUA ORDU | EAN

Zure argazki
denda



Kodak
EXPRESS
SERVICIO DE CONTROL DE CALIDAD

JOSE IGNACIO UNANUE
JUAN BTA. ERRO 1 - ☎ 59 43 32
20.140 ANDOAIN